



BADATOR KILOMETROAK FESTA HANDIA

Egun osoan zehar, 5 gunetan banaturik ekitaldi ugari izango dira Iruran, Ikastolaren aldeko jai erraldoiean » 5-8

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2008-10-04

VIURTEA 1.525 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO




Atzo egin zuten Rondilla kaleko aparkalekuaren inaugurazio ekitaldia. ESTI EZEIZA

RONDILLA KALEKO APARKALEKUA ERABILTZEKO PREST

TOLOSA Atzo inauguratu zuten Udal ordezkariak; 221 autorentzako lekua izango du bi solairutan; asteburu honetan doan erabili ahalko da 4

«Etengabe parte-hartzea ukatu izana» salatu dute

TOLOSA Zazpi hilabetez egon direla Udalaren zain esan du Zahartzaro duinaren aldeko plataformak 2



Kultur eta Kirol Etxearen itxura berria; eskuinean igogailua. N. URBIZU

Kultur eta Kirol Etxean jarri dute igogailua

ALEGIA Irisgarritasun planaren baitan ezarri dute; Harrera gunea ere berri dute 9

Kilometroak
2008 Irura

Lagundu eraikitzen, lagundu jaiagun paregabea eraikitzen, lagundu Irurako ikastola berria eraikitzen, lagundu herria euskaraz eraikitzen.

urriaren 5ean Iruran gaituzu zure zain

...a, ez ahaztu, hobe trenez etortzen bazara!!!

eraikitzen

www.kilometroak.net

Gizartea » Azken zazpi hilabeteetan ez dutela Udaletik «eurekin biltzeko «inolako asmorik azaldu» salatu dute.

INIGO TERRADILLOS

Zahartzaro duinaren aldeko plataformak salatu du ez datorrela bat erakundeetatik egun zabaltzen den mezua errealtatearekin. Hau da, «herritarren parte-hartzearen mezua ari dira etengabe zabaltzen, baina hori errealtatean ez da gautzen». Hori dela eta, eta «nahikoa» itxaron dutela ikusirik, aurrerantzean era zuzen batean parte hartzea erabaki dutela adierazi zuten herenegungo agerraldian.

Plataformakoen ustetan, «gaur egun modan dago herritarren parte-hartzearena: Ibarretxe lehen-dakariak, adibidez, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako ohi dituen udako ikastaroetako batean herritarren partaidetzari buruzko hitzaldia eman zuen; Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarren partaidetzari buruzko dekalogoia buzoneatu dute berriki eta partaidetzari ez badago, okerrago funtzionatzen dutela demokraziak eta gobernua irakur daiteke, besteak beste; eta Tolosan, esaterako, Tolosa 2015 daukagu herritarren parte-hartzearen adibide bezala».

Hala, alde guztietatik «herritarren parte-hartzearen onurak eta beharrendideak astinduz» dabilzala esan dute, «baina hori dugu alde batetik, eta bestetik errealtate

Zahartzaro duinaren aldeko plataforma: «Parte-hartzea etengabe ukatzen ari zaigu»



Zahartzaro duinaren aldeko plataformaren kideak, herenegun. I. TERRADILLOS

tea dago, eta guk ez dugu ikusten parte-hartzearena betetzen denik, bultzatu baino parte hartu nahi dugun herri taldeei trabak besterik ez dizkigute jartzen».

Hala, «egoera honekin» aspertu direla, eta hemendik aurrera era zuzen batean parte hartzeko erabakia hartu dutela adierazi dute

zahartzaro duinaren aldeko plataformakoen. Herenegungo prentsaurrekoan azaldu zuten, «talde bezala sortu ginenetik parte hartu nahi izan dugu, ideiak proposatzeko, azken batean egoitza hobetzen joateko helburuz». Hala, Udalak uda hasieran herritarren partaidetzarako sortu zuen komi-

sio berria ere izan zuten hizpide; izan ere, «Joxe Agustin Arrieta Udaleko Gizarte Ongizateko komisioko lehendakariarekin martxoaren 17an izan ginen azkeneko, eta bilera hartan Diputazioko arduradun batekin eta egoitza berria kudeatuko duen enpresarekin bilera bat antolatuko zuela esan zi-

gun; 7 hilabete igaro dira, eta ez dugu bere berririk izan, eta behin egoitza berria eraikitza dagoenean gure proposamenak berandu datozela esango digute, hurrengo baterako gure partaidetza eskertuko luketela esanez».

Halaber, plataformako ordezkariak Arrietak uztailean adierazi zuena ekarri nahi izan zuten gogorra: «Lehentasunezko helburuetako bat pertsona zaharren lan taldea eratzea zela adierazi zuen, zaharrentzako egoitzaren gaia landuko zuen fundazio baten sorrera bultzatuko zuela azpimarratuz».

«Jatetxeko zerbitzuak okerrera egin du»

Zahartzaro duinaren aldeko plataformak eskaini zuen prentsaurrekoan egoiliar ugari ere bildu ziren, eta euren kezak azaldu zizkieten. Horien artean, Euskal Herria plazako zentroak duen jatetxe zerbitzuaren «eskaintzak behera egin duela» zioten askok, «lehen ez bezala, orain plater bakarra izaten baitugu aukeran, eta ez dakigu noiz arte izango den hau».

Plataformakoen datoren asteartean egingo dutela berriro ere bilera, zentroan bertan, azaldu dute eta han jarraituko dute kexa horiek aztertzen. Hala, horiek Udalean edota egoitzaren kudeatzaileari aurkeztea pentsatuko dutela esan dute. Halaber, plataformako kideek <http://zahartzaroduna/blogia.com> euren blogean parte hartzeko deia ere luzatu nahi diete herritarrei.



Odrizolaren egoera salatu dute

POLITIKA » Lizardi kultur elkarteko kide den Pello Odrizola tolosarraren aldeko elkarretaratzea egin zuten herenegun Plaza Zaharrean. Elkarteko kideek duela hiru hilabete aske egon beharko lukeela salatu nahi izan zuten modu horretan. Pello Odrizolak 20 urte daramatza espetxean. Hain zuzen ere, pasa den uztailaren 2an bete zuen bere zigor osoa, baina Parot legea tarteko, zigorra luzatu egin diote, eta oraindik ere espetxean jarraitzen du tolosarrak. Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Martutene, Valdemoro, Ourense eta Lugoko Bontxe espetxeetatik pasa da Odrizola urte hauetan. Gainera, Amnistiaren Aldeko Mugimendua izan zuten datuen arabera, horietatik ia lauetan, euskal preso politiko bakarra izanik, isolamendua erabatekoa izan da. Dena den, denbora honetan, «bizi baldintza duin batzuen alde borrokan, espetxe barruko egoera aldatu nahian eta isolamenduari aurre eginez» aritu da. Herenegungo elkarretaratzean jende ugari azaldu zen bere egoera salatzen. i.r.

Laburrak

1968an jaiotako enbarkaria antolatutako dute

GIZARTEA » Datorren azaroaren 1ean, larunbata, 1968. urtean jaiotako enbarkaria antolatutako dute. Izena emateko 20 euroko diru sarrera egin beharko da Kutxako kontu honetan: 2101 0067 21 01063684 67. Izen abizenak jarri. Egun horretan, 13:30ean 66 tabernan edo 14:15ean Usabal Sagardotegian geratuko dira. Izen emateko azken eguna urriaren 17a izango da, eta informazio gehiago nahi duenak 685 755 103 telefono zenbakira deitu ahaliko du.

Tolosako Babarruna banatuko dute Iruran

KILOMETROAK » Tolosaldea Tour-ek karpajarriko du bihar Iruran egingo den Kilometroetan. Irurako plazan jarriko dute, eta bertan, 25 kilo (1.000 raziotik gora) Tolosako Babarrunen dastaketa emango dute Tolosako Babarrunen Kofradiako kideek. 12:00etatik 14:00etara bitarte egingo dute dastaketa, eta honetaz gain, Tolosaldeko turismo informazioa banatuko dute eta bereziki Nekazaritza Promozio Kanpaina zabalduko dute.

ARAMBURU
Interesgarriak:

Alokatzeko. Etxebizitza, Estrella eraikuntzan.

Alokatzeko. Garajeak, San Franzisko, Araba etorbidean eta Batxiler Zaldibian, erosteko aukerarekin.

Salgai. Etxebizitzak, Nagusia kalean, Araba etorbidean eta Martin Jose Iraola kalean Tolosan

Salgai. Etxebizitza, erreformatzeko, Legorretan eta Iruran, eta beste bat Iruran sartzeko moduan.

Salgai. Garajeak itxiak eta irekiak, Amarotzen Tolosan eta Ibarren.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



«Salbuespen egoeraren aurka»

TOLOSALDEA ■ Atzo ekin zieten itxialdiei ezker abertzaleko kideek Adunako, Anoetako, Villabonako eta Tolosako udaletxeetan. «Egun Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera» salatzeke egin dituzte itxialdiak (Irudian, Adunakoa). Gaur eguerdian amaituko dituz-

te, arratsaldean Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko. Bide batez, itxialdietan parte hartu ez dutenei manifestaziora joateko deia egin diete «azken denboraldiko ilegalizazioak, kartzelaratzean eta salbuespen egoera salatzeke». HITZA

Z Zurea da hitza info



Bidali ondoen argazkiak

TOLOSA ■ Udazkena da Euskal Herriko baso eta bazterretan ondo gehien ateratzen den urtaroa, eta ondoak biltzeko zaletasuna ere ez da nolana hinkoa. Hori dela eta, irakurleek aurten bildutako argazkien bil-

duma abiarazi du aurten www.hitza.infok. Tolosar bat dagoeneko animatu da bertan parte hartzera. Javi Aramendi da bera. «Politik bai, baina ez nituzke jango...», dio berak bidalitako argazkiarekin batera.

Zinema eskaintza zabala asteburuan Leidor aretoan

ERREDAKZIOA

Zinema usaina hartuko du asteburuan Leidor aretoak. Izan ere, hainbat saio izango dira ikusgai gaur, bihar eta etzi.

Gaurkoan, hiru emanaldi izango dira: 17:00etan, *Street dance* fil-

ma izango da ikusgai; *Venganza* filma, berriz, 19:30an izango da eta azkena *Dejad de quererme* filma izango da, 22:30ean.

Igandean, berriz, hauek izango dira ordu-tegiak: *Street dance* 17:00etan, *Dejad de quererme*

19:30ean eta *Venganza*, 22:00ean. Sarrerak Leidor antzokiko lehiatilan bertan eskuratu ahaliko dira.

Astelehenean, berriz, ikuslearen eguna izango da eta *Dejad de quererme* filma merkeago ikusteko aukera izango da, 20:30ean.




hitza info ere kilometroetan

udazken-neguko materiala
SALGAI
Irurako plazan



harpidedunentzat prezio bereziak:
ekarri zure harpidetza txartela!

Heldu, gazte nahiz txikieneztat zirak, jertseak, elastikoak eta hainbat osagarri.





Atzo goizean inauguratu zuten Rondilla kaleko aparkalekua; 221 auto uzteko tokia dago bertan. ESTI EZEIZA

Zabalik da Rondilla kalearen amaieran kokatuta dagoen aparkaleku berria

Azpiegiturak » Atzo eguerdian inauguratu zuten lur azpiko parking berria; asteburu honetan doakoa da zerbitzua.

ESTI EZEIZA

Tolosa erdigunean autoa ezin aparkatu izatea, eguneroko arazoa da askorentzat. Orain, aparkaleku gabezia murrizteko asmo horretan, gune berri bat egokitu du Tolosako Udalak. Hala, atzo inauguratu zuten Rondilla kaleko azpialdean kokatuta dagoen parking berria. Bertan, 221 autorentzako lekua dago.

Aparkaleku berriak bi solairu ditu, eta Rondilla kalea, Belate auzoarekin lotzen den inguru horretan du sarrera. Lehendabiziko solairuan errotazio sistema erabiliko da, eta edonork utzi ahal izango du autoa bertan. Bigarren solairuko aparkalekuak berriz, bizilagunekin dira.

Zerbitzu berria atzotik martxan da

Atzo ireki zituzten lehendabiziko aldiz aparkalekuaren ateak. Honenbestez, zerbitzu berri bat denez, asteburu honetan dohainik ematea erabaki du Udalak, eta kudeaketaz arduratzen den UTE Alhondiga enpresak. Gaur eta bihar edonork utzi ahal izango du autoa parkingeko lehen solairuan, ordaindu gabe. Dena den, errotazio sistema bultzatzeko asmoz, gehienez lau orduz eduki ahal izango da hor kotxea. Epe hori igarotakoan, autoa atera egin beharko da, edo gainerantzean, ordaindu. Hala ere, asteburu hau igarotakoan, ez da denboramuga hori egongo.

Lehendabiziko solairuko aparkalekuen prezioa ondorengoa izango da: 0 eta 5 minutu artean, doan. 5 eta 15 minutu bitartean, 0,021 euro minutuko. 15 eta 30 minutu artean, 0,010 euro minutuko. Azkenik, 30 minututik gora igarotakoan, 0,021 euro minutuko.

Bigarren solairuan 117 autorent-

tzako lekua dago, baina aparkaleku hauek inguruko biztanleentzat dira. 15.355 eurotan saldu da plaza bakoitza. Baina hauek, 50 urtetarako esleitzen dira. Gainera, batzuek trastelekua ere badute. Udalak adierazitakoaren arabera, denak salduta daude jada. Solairu bakoitzeko erabiltzaileek sarrera ezberdinak izango dituzte. Hala da, bata errotaziokoentzat izango da, eta bestea bigarren solairura doazen auzotarrentzat.

Errotaziozko aparkalekuen kudeaketaz UTE Alhondiga anpresa arduratuko da. Asteartean egindako Osoko Bilkura onartu zuten Udaltzakoek, aho batez, 20 urtetarako esleipena. Beraien esku izango da ere Gerontologiko berriaren azpiko aparkalekuen kudeaketa. Bertan 500 autorentzako lekua egongo da. Honenbestez, bi guneetako baldintzak berdinak izango dira.

Ur saneamenduko kolektorearen lanak direla-eta hainbat aldaketa ari dira gauzatzen. Ondorioz,

aparkalekuetako batzuk ezin dira erabili. Baina Rondilla kaleko parkingaren irekierarekin, «kendutakoak baino gehiago dira ipintzen ditugunak», azaldu zuen atzo inaugurazioan Jokin Bildarratz alkateak. Atzo inauguratu bazuten ere aparkalekua, oraindik ez dago



Belate auzotik du sarbidea lehendabiziko solairuak. E. EZEIZA

guztiz amaitua. Izan ere, goiko aldeko lanak amaitu artean ezin izango da zerbitzu osoa eskaini.

Mugikortasun planarekin aurrera

Tolosako Udalak 2005ean onartu zuen Mugikortasun plana. Orduetik hona aurrera daraman egitasmo horretan aipatzen zen, aparka-

Gaur eta bihar doan utzi ahal izango da autoa Rondilla kaleko aparkaleku berria

Denera 221 autorentzako dago tokia; hauek 107 errotazio sistema bidez erabiliko dira

leku gehiago behar zirela herrian, bertakoentzat nahiz bisitariarentzat.

Hemendik aurrera, toki gehiago izango dute eskualdeko hiriburura erostekak egitera etortzen diren horiek autoa uzteko. Gainera, aurrera begira ere, merkatarien elkarrekin elkarlanean, ekimen bereziak aurrera eramateko asmoa dute Udalekoek.

Aparkalekuaren gainean, bestalde, enparantza bat egingo dute. Hor, egoteko lekuak nahiz berdeguneak izango dira, inguru atsegina eta erakargarri bat izan dadin. Baina oraindik ere hilaibete batzuk falta dira proiektua amaitutzat jotzeko.

Udalak argitzea ere zainduko du gune horretan, eta eserlekuak nahiz hiri-altzariak jarriko ditu, herritarren bilgune izan dadin hori.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



E Elkarrizketa

JOXE MENDIZABAL › Kilometroak 2008ren koordinatzailea

IMANOL GARCIA

Joxe Mendizabal (Ibarra, 1967) Irurako Kilometroen koordinatzaileetako bat da. Baita Irurako Ikastolako gurasoa, aurtengo ikasturtean hasi baita bere alaba. Kilometroen jaia baina astebehe lehenago erantzun zien galderei.

Kilometroen koordinatzaile zarela, Ikastolako guraso bihurtu zara.

Azken finean herriaribizia ematen diona Ikastola da. Haurrak bertara joaten dira eta hor sortzen dira harreman asko eta beraz oso garrantzitsua da. Ikastolak eragina egiten diola bai haurrak dituenari eta baita ez dituenari ere. Agian beste Ikastola batzuk herri handiagotan ez dute hainbesteko eragina, baina Iruran bai, herrian dagoen eskola bakarra baita.

Urtebete festa antolatzen. Zer moduz joan da denbora hori guztia?

Orain justu urtebete hasi nintzen lanean koordinatzaile bezala. Batek baino gehiagok galdetzen dit uste nuena baino gehiago izan ote den lana. Eta justu nik pentsatzen nuena izan da, hau da, bost pistako zirko bat, denbora guztian bere gainean egon behar dena. Koordinatzailean zentratzen da informazio gehiena eta ardura gehiena, eta egiten ez dena guri tokatzen zaigu. Horrelako jai batean parte hartzen duzunean, jai horrekin duzun harremana aldatu egin da eta beste ikuspegi batetik ikusten duzu, zureagoa egiten duzu eta badakizu zenbat lan suposatzen duen. Azken egunetan, esaterako, Bergararik dei dexente jasotzen ari gara bere burua eskainiz lana egiteko, esku bat botatzeko. Ikusten da Kilometroak egin den herri horietan zernolako eragina utzi duen.

Prestaketen aldetik, nahi bezala joan dira?

Hasi ginenean, herri txikia delako, errespetu puntu bat bazegoen. Gauza handi bat da eta ea gai izango ginen antolatzeke. Egia esan, gai izango ginela bagenekien, baina hor zegoen errespetu puntu hori, eta hasieratik jendea ermittu handiarekin hasi da. Eta horrek ere ekarri du urtean zehar gauza asko egin direla. Pentsatzen genituenak egin ditugu eta iritsi da eguna prestatzeko eguna eta horretan sartu gara buru-belarri.



L. GARCIA

«Orain artekoarekin balantze positiboa egiteko moduan gaude»

Urte honetan guztian herritarren parte-hartzea nabarmendu da. Baita inguruko herrietakoa ere.

Anoetako Ikastolatik, harreman oso zuzena duena Irurako Ikastolarekin, eta Anoetatik izugarriko laguntza jaso dugu, esaterako, irteerak egiteko. Tolosatik laguntza asko jaso dugu... Azken finean kontziente izan gara gutxi garena eta eskua botatze hori errezagoa izan daguztiengandik. Jendeguztiabeharrezkoa izan da eta da. Orain momentu honetan festa egiteko moduan gaude, baina oraindik jendea deitzen ari da. Eta hori urte-

an zehar ere zenbat egunetan ere somatu dugu, adibidez, irteerak egiterakoan. Asko egin ditugu eta jaso dugu komentariorik leku askotan ikusi dutela Kilometroen mahaia. Eta horretan Iruratik, Anoetatik, Tolosatik, Villabonatik... parte hartu dute.

Ekitaldi nagusiaren faltan, beraz, zein da egiten duzuen balantzea?

Orain arte egindakoarekin dagoneko balantze positiboa egiteko moduan gaude. Jendeak jarri duen gogoia eta jendeak egin duen lana primerakoa izan da. Gero, egunerako, gauza batzuk ezin dira

kontrolatu. Eguraldia, esaterako. Santa Klarara eramango ditugu arraultzak... Beste gauza guztiak saiatu gara lotuta izaten. Batzorde-etako bileretan esan duguna zera da: lotu daitekeen guztia lotu egin behar dugu, dena planifikatuta izan behar dugu, baina prest egon behar gara inprobisatzeko eta gaitasun hori ere izan behar dugu.

Garraio publikoa erabiltzeko deia behin eta berriro egin duzue.

Irura herri txikia da baina oso ondo komunikatuta dago. Eta hona etorri garen askorentzat hori izan da kontuan izan dugun ezau-

garrietako bat. Trena hor bertan dugu, autobusak hor bertan ditugu, N-1 errepidea hor bertatik igarotzen da. Oso ondo komunikatuta dagoen herri bat da eta horrek aukera ematen du autorik gabe erraz etortzeko. Halere, aparkalekuak prestatu ditugu, bainabada toki bat garraio publikoan etortzeko auke-

«Horrelako jai batean parte hartzen duzunean, zureagoa egiten duzu»

«Jendeak jarri duen gogoia eta jendeak egin duen lana primerakoa izan da»

«Autorik gabe etortzeko erraztasunak daude Irura oso ondo komunikatuta dagoen herria baita»

ra handiak ematen duena. Eta ezaugarri hori indartu egin dugu. Renfek ere bere aldetik ahalegin handia egin du. Bestalde, bizikleta erabili daiteke. Tolosatik Irurara etortzeko ez da normalean bizikleta erabiltzen, baina Iruratik To- loara joateko bai. Paseotxo bat da, Villabonatik ere bai, eta Asteasutik Zizurkilera orain gutxi inauguratu dute bidegorria. Horregatik bururatu zitzaigun bizikletentzako aparkalekuajartzea.

Egitarauri begiratu, hamarretako ekitaldiak hasten dira.

Goizeko bederatzietan haten da jendea mugitzen. Irekiera ekitaldia 09:30ean da, baina ordurako jendea zirkuituan zehar dabil. 08:30erako errepideak itxita egongo dira.

Egitarau guztia osatzeak ere lan handia emangozuen.

Hasiera batean prestatu genuen zer eskaini nahi genuen eta gero ezaugarri horiek betetzen dituzten taldeekin harremanetan jartzen gara. Gero eskaintza asko ere jasotzen dira eta gutzi horiek ere aztertzen dira. Bailaran zer dagoen ere kontuan hartzen da eta gutzi hori kontuan izanik egitaraua osatzen joan gara. Uda aurretik erdi lotuta zeuden denak. Gero katxeta jaitzita etortzen dira gehienak eta hori eskertzekoa da ere.



**CITROËN BERLINGO BERRIA
BENETAN NAGUSI DIRENENTZAKO**

ETA GAINERA, IBILGAILU KOMERTZIALEN MERKATUAN LIDERRA DEN GAMA AURKEZTEN DIZUGU.

Citroën
JUMPER
HDi
15.400€^{*tik}
aurrera + BEZ



Citroën NEMO
8.250€^{*tik}
aurrera + BEZ

Citroën
BERLINGO FIRST
8.400€^{*tik}
aurrera + BEZ

Citroën JUMPY HDi
14.900€^{*tik}
aurrera + BEZ

Berlingo

ETOR ZAITEZ: **IROVI, S.A.** Citroën Konzesionario Ofiziala
Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa



ZER, NON, NOIZ



» EGITARAILIA GUNEZ GUNE

<p>1. GUNEA IRURAKO IKASTOLA</p> <p>Haur jolasak, puzgarriak, globo aerostatikoa, tallerrak. 10:30. Zirkuitu irekia. 10:30. Bertsoariak. 11:00. Potxin eta Pabxin pallazo-emanaldia. 13:00. Betizu, Egin Kantu karroka. 15:00. Txan magoa eta JonMajic-en saso. 17:00. Popolo eta Mokolo pallazo-emanaldia.</p>	<p>2. GUNEA KATATEGI</p> <p>10:30. Zea Mays taldearen kontzertua. 12:30. Deabruak Teilatuetan taldearen kontzertua. 14:30. Obrint Past taldearen kontzertua. 16:00. Triklizio taldearen kontzertua. 17:30. Betagarri taldearen kontzertua.</p>	<p>3. GUNEA ANOETAKO PLAZA</p> <p>Haur jolasak, puzgarriak... 10:00. Jolasak. 12:00. Alur dantza taldearen emanaldia. 13:30. Jone abeslariaren kontzertua. 15:00. Desordutan taldearen kontzertua. 16:30. Che Sudaka taldearen kontzertua. 18:00. Tapia ta Leturia taldearen kontzertua.</p>	<p>4. GUNEA ANOETAKO IKASTOLA</p> <p>Haur jolasak, tallerrak, graffitiak... 10:30. Esatekin eskual jokoa. 12:30. MAAK taldearen kontzertua. 14:00. Esatekin eskual jokoa. 16:00. Maniba Beat taldearen kontzertua. 17:30. Amairu taldearen kontzertua.</p>	<p>5. GUNEA IRURA HERRIA</p> <p>Haur jolasak, jupia, tonbola, bluetooth... 10:30. Urdaberri dantza taldearen emanaldia. 12:00. Xurdirin haurrentzako ikuskizuna. 13:30. Hipodeta Tomax pallazo-emanaldia. 15:00. Samar taldearen kontzertua. 16:30. DJ Makala. 18:00. Lakel taldearen kontzertua.</p>
---	---	--	--	---

Zirkuituan zehar kale animazioa izango da egun guztian: Loatzo musika eskola, Titorri txaranga, Zpeiz Mukaki, Zo-zongo, Txortains, Kompozinarik txaranga, Berita Zaharreko musikolaia, Mulan...

Biharko festan denok ikastolen alde!!

eraikitzen
Kilometroak-08 *Izura*

Ergileen, 5
Tel.: 943 65 29 32
anoeta@ikastola.net

Irura » Gustu eta adin guztietarako ekitaldiak izango dira jaialdi erraldoirako prestatu duten egitarauan.

MANOLAGARCA
Kilometroak ekitaldi erraldoi bat dela esateko, urteroz izaten den egitarauari begiratu besterik ez dago. Aurten ere, gustu eta adin guztietara egokitutako ekitaldiak izango dira Iruran eta Anoetan egingo den festan. Bost gune, 27 ekitaldi, horretaz gain izango den kale animazioa eta hainbat guretan egunean zehar egongo diren puzgarriak, jolasak, tallerrak, jupia, graffitiak, tonbola, globo aerostatikoa...

Urtero bezala ere musikak protagonista handia izango da 27 ekitaldi horietatik hamabost kontzertuak izango dira, baina beste ekitalietan ere ez da faltako musikaririk. Bertsoariak bere doinurik jarriko dituzte, pailazoak bere kanta, Xurdirin ikuskizun musikala, dantza taldeen emanaldiak...

Oinez, bizikletan edo garraio publikoan

Irura » Biharko jaialdi irurako jateko, hainbat aukera izango dituzte kilometroaleak autoa etxe ondoan utziz.



Kilometroara bizikletaz jateko dela luzatu zuten eskualdeko ikastolako ikidek bizikleta martxo eguzia.

EREDAKIZIOA
Kilometroari antolatzailek behin eta berriro ere pila duten mezuaz iranda «Garraio publiko era-bili». Festa tren ez iristeko aukeraz in hobea dute kilometroaleak. Anosko jostakizunaren erdi-erdian baitago. Autobusean iristeko ere aukera ugari izango dira.

Halere, eskualdeko oinez ere jateko ez dute esfortzu handirik egin behar. Tolosa, Hernialde, Alkiza eta Villabona zirkuitu oso gertu daude. Oinez ez duenak joan nahi, bizikletan ere joan daiteke. Gainera, ez du arduratu beharrik izango bizikletaz, aurrengo berri-

kontzertuak bat baita bizikletan apartakalea. Bertan egun guztian utzi daiteke eta beti egongo dira zainduak. 5. gunean egongo da apartakalea.

Jasangarritasunarekin bat eginez ere, alpatzeko da edalontzi berbera bilgurrak erabiliko direla festa, hain zuzen gureago sartzeko amoz. Edalontzi jasotzeko euro batetik txarteltxo erosi behar da kilometroalek. Gero, txarteltxo ireki dezake 3. eta 5. guneetako diru truketan euroa berreskuratzen.

Bost gune daude eta gutzira 27 ekitaldi izango dira, horietatik 15 kontzertuak

Eskualdean hain errotua dagoen kale animazioa eta txaranga doinuak ez dira faltako

Horretaz gain, eskualdean hain errotua dagoen kale animazioa eta txaranga doinuak ere ez dira faltako eta horietan ere eskualdeko ordezkari izango da. Loatzo musika eskola eta Mulanbo perkusio taldea.

Parte-hartzea bultzatu
Antolatzailek ere naharrendu dute egitaraua parte-hartzeari garrantzi eman nahi diotela eta horregatik hainbat gunean jolasak antolatzen dituzte, hau da, jendea ez dadin bakarrik ikusle moduan egon eta parte hartzean ekitalietan.

Bestalde, antolatzailek ere Primavera pasatu gabe karpina abian izan dute beste urterean bezala. Oasun heziketa landu dute ikastolatan unitate didaktiko baten bitartez. Bestalde, prebentzioa ere jasiak izan bertan egiten da. Aseguratzeko hezitzaile batzuk prestatzen dituzte eta oasun karpina jantzen da (3. gunean egongo da aurten).

Hiru menu berezi aukeran

Irura » Sagardotegi menua 1. gunean, KMK menua 3. gunean eta Eraikitzen menua 4. gunean, mahaiari eserita bazkaltzeko.



EREDAKIZIOA
Kilometroara joango diren askok eta askok txosten baten hartuko ogitartekoak jango dituzte. Mahaiaren bueltan eserita jatea nahago dute hiru aukera eder izango dituzte bihurtzeko: sagardotegi menua, KMK menua eta Eraikitzen menua.

Sagardotegi menua 1. gunean dastatu behar da, Irurako frontoian zehar, eta 13:30etik aurrera zahalkiduko dute zerbitzua. Izanek dioson bezala, sagardotegi batean aurkitzen den menua izango da: bakailo tortilla, bakailo fritura piperekin, sifit rouleta, gazta, trasparrak, itxurak, ogia, ura eta txerriko sagardoak. Txarrelak jantokian egongo dira salgai 24 eurotan.

KMK menua 3. gunean dastatu behar da, Anoetako frontoian.

Bat Mekanika eta Karrozeria

Suspentsioan, direkzioan eta baliztatzen espezializatuak gara

Tel.: 943 69 22 05 • IRURA

TOLOSALDEKO MOTOR, S.A.
20080 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 660227 Fax: 943 660228
e-mail: info@tolosamotor.com

Zator bihar Irurara Kilometroak ospatzera!

Irurako Udala

eraikitzen
Kilometroak-08 *Izura*



Gauza bakoitza bere lekuan

Irura» Azken egunotan dabilta lan handienarekin, baina urte osoan zehar muntaia batzordekoak lanpetuta ibili dira.

I. GARCIA

Muntaia batzordearen eginkizuna ikusgarrienetakoa izaten da Kilometroetako aurreko egunetan, bertakoak arduratzen baitira eszenatokiak eta karpak muntatzeaz, elektrizitateen hodiak banatzeaz... Batzordearen zerrendan 80 lagun inguru daude eta batzordeburu lanetan Gorka Urtaza eta Bittor Amondarain dabilta. Hauek aritu dira aurten eta bereziki azken egunotan zerrenda horietakoei deitzen egin beharreko lanak betetzeko.

Hasieratik dabilta lanean muntaia batzordekoak. «Bergarara joan ginen materiala ekartzera, dendak ere muntatu genituen...», azaltzen dute batzordeburuek. Kilometroek badute bere material propioa, urte batetik bestera, herri batetik bestera, eramaten dutena: argindarrerako materiala, astoak, barrentzako oholtzak... Eta lehe-

nengo lanetakoa horixe izan zen, materiala ekarri eta txukun jartzea biltegi batean. Dendako materiala ere beraiek ekarri zuten. Urtazak azaltzen duenez, «ez gara muntaketaz bakarrik arduratzen, logistikaz ere gu arduratzen gara».

Batzordean denetarik daude: garraiolaria, elektrizistak, iturginak..., horrelako jaialdi bat antolatzeko ofizio askotako jendea behar baita. Ekitaldi guztietan parte hartu dute. Amondarainek dioenez, «besteei bururatzen zitzairen zer egin eta gero guri tokatzen zitzaigun aurrera eramatea».

Paperekoa errealitatera

Eginkizun handiena, noski, bihar-ko festarako beharrezko guztia muntatzea izan da. Azken egunetan paperean zutena errealitatean nola gelditzen zen ikusten joan dira. «Guri komeni zitzaigun ahal zen azkaren jakitean joango zi-



Muntaia batzordeko zenbait kide, aste honetan, Irurako Ikastolaren gunean. I. GARCIA

ren gauzak, argindarraren kontu guztiak lotzeko, adibidez», dio Urtazak.

Gauzak bere lekuan jartzen joan diren heinean, «beste lasaitasun bat ematen dizu», azaltzen dute. Bergarakoekin konparatuz denbora gehiago izan dute, haiek az-

ken hiru egunak izan baitzituzten eta hauek Irura herriko gunea eta Anoetako plazako gunea aurreko astean dagoeneko muntatzen hasi baitziren.

Beste kontua izango da desmontaketa egitea. «Igandoan bertan hasiko gara eta pare bat egunetan

lanak bukatzea espero dugu», diote. Datorren urtean Kilometroak Donostian egingo dira. Honez gero egin dizkiete bisitak Irurakoei, biltegia nola antolatu dute ikusteko. Biharkoa pasatu ondoren, Donostikoei tokatu zaie materialaz arduratzea.

E Elkarrizketa

JON GOROSTIAGA » Dastatzen enpresako kudeatzailea

«Kilometroetan buelta bat eman eta gero txuleta on bat jatea erakargarria da»

I. GARCIA

Asteasun dagoen Dastatzen enpresa haragi produktuen salmentan eta banaketan aritzen da eta bere produktu garrantzitsuen txuleta da. Kilometroak 2008rako txuletak, xolomoa eta biribilkia eramango dute. Jon Gorostiaga (Alegia, 1974) da enpresako kudeatzailea.

Zer lanetan aritzen da Dastatzen enpresa?

Enpresa orain sei urte inguru sortu zen eta gure dedikazioaren %80a txuleta banaketan da. Guk Europa mailan erosten dugu. Hemen dagoen kultura kalitate handiko txuleta jatearena da eta Europara zabaldu beharra dago aukeraketa egiteko. Sagardotegiak eta erretegiak banatzen dizkiogu.

Nola sortu zen Kilometroaren haragi-hornitzailea izatearena?

Antolakuntzan dagoen bat ezaguna da eta bazuen gure berri. Gehienbat sagardotegiaren kontuarengatik da, Irurako frontoian egongo dena. Sagardoa eramango dienari txuleta eramaten dizkiogu eta horrela sortu zen. Igangandean bertan zerbituko dizkiogu eta txuleta ebakita utziko dizkiogu. 250



I. GARCIA

kilo txuleta, 500 lagun ingururen tzat, eramango ditugu. Horrekin lotuta, gauza gehiago ere ukitzen ditugunez, xolomoa eta biribilkia ere zerbituko dizkiegu. 2.000 kilo xolomoa eramango dizkiogu, hori ere ebakita, eta 16.000 ogitarteko

egiteko asmoa dute. Biribilkia Anoetako frontoian egingo den menurako izango da.

Horrelako lanik egin ahal duzue aurretik?

Txuleta ebakitzeara sagardotegi denboraldian ere egiten dugu.

Astegunetan lasaiago ibiltzen dira, baina asteburutan lan asko izaten dute eta askok eskatzen digute txuleta ebakita zerbitzatzea. Horrez aparte harategiak ditugu ere eta azkenean kilo asko mugitzen ditugu eta horregatik prezio onak

lortzen ditugu. Lagundu diegu errosterakoan.

Zer nolako arrakasta izango du sagardotegiko menuak?

Nik uste dut publikoaren denarentzako izango dela. Gure kulturaren sagardotegiak nahiko arrakastatsua da. Buelta bat eman eta gero txuleta on bat jateko aukera izatea ondo dago. Pentsatzen dut gazte jendea baino, jende helduagoa joango dela. Nire ustez erakargarria da.

Dagoeneko sagardotegi denboraldiari begira izango zarete.

Erretegiak udan zehar ondo funtzionatzen dute. Orain zertxobait jaisten hasten dira, baina orain harategiek izaten dute mugimendu gehiago eta Eguberrietan asko mugitzen da azpizuna eta txuleta. Beraz, batean eskaria jaisten denean, bestean igotzen da. Urtariletik aurrera sagardotegiaren garaia hasten da. Gero, sagardotegiaren garaia bukatzen denean, jaunarteen garaia izaten da eta orduan azpizuna zerbitzatzen dugu.

Sagardoa bezala, urte batetik bezala aldatzen joaten da txuleta?

Gauza bizi bat da eta eta beti gorabehera batzuk izaten dira, baina guk bide bat dugu markatuta eta Europara ateratzen garenean errostera bide hori jarraitzen dugu. Tarteka Europara joaten gara eta exijitzen dugu kalitate bat eta hornitzaileek ere badikite zer nahi izaten dugu eta horregatik nahiko erregularra izaten da zerbitzatzen dugun produktua.

Irisgarritasuna sustatze aldera, igogailua jarri dute Kultur Etxean

Alegia » Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzari esker aldaketak egin dituzte, Kultur Etxeko harrera gunea ere aldatuz.

NEREA URBIZU

Kultur eta Kirol Etxean udan zehar obrak egin dituzte, eta aldaketarik garrantzitsuenak igogailua jarztearena izan da. Irisgarritasun planaren baitangoa izan da, hau da, ezintasun fisikoak dituztenek edo mugitzeko arazoak dituztenek Kultur Etxeak dituen zerbitzu guztiez gozatzeko, hain zuzen. Uztailearen 21etik irailaren 15era arte itxita egon da Kultur Etxea, bertako lanak zirela medio.

Dena dela, oraindik ere igogailua ezin da erabili, azken kontrolak egin behar zaizkiolako, baina datoren asterako espero dute martxan egotea. «Proba batzuk egin behar dituzte oraindik, baina bukatuta dago». 125.000 euro inguru kostatu da eta Eusko Jaurlaritzak %30eko diru laguntza eman dio Alegiako Udalari. «Diru laguntza hau irisgarritasuna sustatzeko erabili behar zen: proiektua aurkeztu genuen eta baieztua erantzun zituzten».

Igogailuak bost geldialdi ditu

Oraindik ez dute Alegian irisgarritasun plan guztia zehaztu baina Kultur Etxearekin hasi dira eta bide horretatik abiatuko direla adierazi du Aitor Sarasola alkateak. «Beharrezkoa da egitea, eta au-



Hau da Kultur Etxeko harreraren itxura berria: erdiko gela bilera egiteko izango da. Ezkerrean bulegoa dago. N. URBIZU

rrekontu pare bat eskatu ditugu. Bitartean, irisgarritasuna leku puntualetan ari gara aurrera eramaten, tartean Kultur Etxea izan delarik». Kultur Etxean «ume, gazte zein helduak ibiltzen dira, eta beharrezkoa ikusten genuen». Herriko teknikariarekin aztertu zuten, eta «Udaleko aparejadoreak proiektua egin zuen. Enpresa ezberdinei gonbidatu zitzaizaien aurrekontuak aurkez zitzaizten».

Azkenean, Iparragirre-Sagastizabal enpresa arduratu da obrak. «Haien eskaintza egokiena iruditu zitzaizgun, bai diruz, bai epeaz eta bermeaz ere». Alkatearen hitzetan, «lan txukuna egin dute eta gustura gaude egin dutenarekin. Eta inportanteena, irisgarritasun hori bermatu da».

Kultur Etxeko igogailuak bost geldialdi ditu: aldageletatik hasita, harrera eta batzar aretora (Kultur Etxean sartzeko ate nagusikoa da), pilotalekuko gradetara, liburutegira, ludotekara edota eskulara eta dantza gelara iritsi ahal izango da.

Sarrera ere aldatuta

Igogailuarekin batera, Kultur Etxeko sarrera edo harrera lekua ere aldatu egin dute. Lehenago sartu eta parez-pare Kultur Etxeko arduradunak zeuden, baina orain ezkerreko aldean daude, eta parean dagoen gela, bilera gela izango da, nahi duenarentzat eskuragarri. Kultur Etxeko arduradunek esan bezala, «argi gehiago dauka orain, bai gure bulegoak eta baita bilera gelak ere».

«Sarrera lehen bezala dago, baina guneak aldatu egin dira zertxobait. Orain diskretuago dago, txukunago. Zertxobait zaharkituta zegoen lehenago eta orain sartzeko beste itxura bat dauka», dio alkateak. «Egia esan, aparejadoreak lan txukuna egin du, zoriontzekoa, hain zuzen».

Irisgarritasun plan orokorra

Esan bezala, irisgarritasun plan orokorra egin hastera doaz, herri guztiari begira, hain zuzen. «Oztopo fisiko horiek gainditzen jarraituko dugu datozen urteetan». Hala nola, espaloiei ranpak jarri, zebrabide goratuak, esaterako osasun zentruan igogailuak edo bestelako erraztasunak... egiteko asmoa erakutsi du Udalak.

Laburrak

Festetan gaur, puzgarriak, zaldiak, zahagi ardoa...

UGARTE » Gaur Ugarteko festen egitarauaren baitan, 11:00 etan gaztetxoek pilota partidak izango dira. Puzgarriak eta ohe elastikoak daude ere, 12:30etik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara. Arratsaldean zehar zaldiak ibiliko dira nahi duenak ibilaldirioak egiteko. Gero txokolata izango da. 16:00 etan Ugarteko IX. Mus Txapelketa jokatuko da eta 21:00etan, berriz, zahagi ardoa. Bukatzeko, trikixka eta ikuskizun bitxia izango dira.

Gaur festen balantzea egiteko afaria izango da

BEDAIO » Gaur Bedaion festen ondoren egiten ohi duten afaria izango dute. Festetako balantzea jendeari adierazi, izan diren goraberak aipatu eta proposamenak entzuteko aukera luzatuko dute Artubi elkarteak. Modu batean edo bestean, bakoitzak ahal izan duen eran emandako laguntza-rengatik esker ona ere adieraziko dute. Afaria 21:00etan izango da.

Azokan parte hartzeko izen-ematea ostiralera arte

ALEGIA » Hilaren 19an, Alegian II. Animalien eta Barazkien Azoka antolatuko dute. Oraindik ere bertan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago. Izena emateko Kultur Etxetik pasatzea garrantzitsua da antolatzaileentzat, horrela lana erraztuz. Izena emateko epea hilaren 10ean ixten da, datorren ostiralean, beraz. Azoka plazan izango da, eta saltzeko edo produktuak erakusgai jartzeko aukera izaten da azoka honetan.



Igogailuak bost geldialdi izango ditu, bata frontoietako gradetan. Igogailua irailaren erdialdean jarri zuten. N. URBIZU



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



SOLDADURA ETA GALDIARAGINTZA
IKASTAROA (Langabeharrentzat)
LANBIDE

IRAUPENA: 680 ordu.
ZUZENDUA: Edocin pertsonentzat, nahiz gizon edo emakume.
HASIERA: 2008ko Urtarrilaren 28an.
BUKAERA: 2008ko Apirilaren 30ean.
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:30ra
PROGRAMA: 530 ordu.

1.- GALDIARAGINTZA ETA ERAKUNTZETAKO PLANEN INTERPRETAZIOA 80H 2.- EBAKETA PROZEDURAK 80H 3.- ERAKUNTZA METALIKOETAKO OINARRIZKO KALITATE KONTROLAK 20H 4.- ERAKUNTZA METALIKOETAKO LAN ARRISKIEN PREBENTZIOA 20H 5.- ANGULUKO SOLDEAKETA ELEKTRODOZ 80H 6.- A TOPE SOLDEAKETA ELEKTRODOZ 80H 7.- NIG-MAG SOLDEAKETA HORIZONTAL ERAN 50H 8.- TIG SOLDEAKETA HORIZONTAL ERAN 50H 9.- EGITURA METALIKOEN EGITURAK 80H 10.- SENTZIBILIZAZIO AMBIENTALA 10H

LANTEGIETAKO PRAKTIKAK : 150 ORDU.

DIRU LAGUNTZA:

JUSTIZIA LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA



DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Merkatu Inleku eta Barneko Zerbitzuen, 1.000ko Urtarrilaren 28an
Informazioa eta merkaturako zerbitzua 942 42 11 47

Garagardo Gaua egingo dute gaur 60 lagun inguruk Zimiteyuan

Zizurkil » Antolatzaileek azaltzen dutenez, «ez du dirua ateratzeko helbururik, baizik herri giroa sortzearena».

I. GARCIA

Hamaikarren aldia izango da gaur Zizurkil Goiko Zimiteyuan elkar-tzen diren Garagardo Gaua ospatzeko. Antolatzaileek 60 bat lagun izango direla espero dute. Helburua «ez da dirurik ateratzea, baizik herri giroa sortzea», azaltzen dute.

Afari herrikoa bezala antolatu dute, baina garagardoaren inguruan eta garagardo azoketan izaten den antzeko menuarekin. Kainero bat izaten dute eta jendek nahi duen adina hartzen du, bakoitzak bere pitxarra eskuan duela. Afariaren ondoren, bai janaritan bai garagardotan gastatutakoak kontatu eta denon artean ordaintzen dute.

Gipuzkoako Halterofilia Txapelketa jokoan gaur Olaederran

Villabona » 15 urtez azpikoak eta 17 urtez azpikoak lehiatuko dira; Danena-Olaederra taldeko 12 pultsulari ariko dira.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Halterofilia Txapelketa jokoan izango da gaur, 10:00etatik aurrera, Villabonako Olaederra kiroldegian. 15 urte azpiko eta 17 urte azpiko txapelketak egingo dituzte eta beste talde batzuekin batera ariko da ere eskualdeko Danena-Olaederra taldea.

Guztira 12 pultsulari ariko dira lehia Danena-Olaederra taldeak. 15 urte azpikoan, Adrian Sasian, Kellyam Quintana, Koldo saratxo, Asier gallego, Iñaki Zubelzu, Igor galludo, Unai Calvo eta Issam Elokili ariko dira. 17 urte azpikoan, Igor Sasian, Iker Hernandez, Julen Intxausti eta Jokin Urkizu ariko dira lehia.

Gaurko Gipuzkoako txapelketaren ondoren, 15 urte azpikoek Euskadiko Txapelketa datorren astean izango dute eta Espainiakoa hemendik lau asteetara Sevillan. 17 urte azpikoek, Euskadiko Txapelketa hilaren 26 izango dute eta Espainiakoa azaroan A Coruña.

Kaxkardi elkarteak martxan jarri du aisialdirako kirol orientazio zerbitzua

Zizurkil » Urtaroaren arabera, inguruan eskaintzen diren kirol ekintzen berri ematea da beraien asmoa.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Kaxkardi Kirol Erre- kreatibo elkarteak, herritarren ekimena eta parte-hartzea sustatzeko asmoarekin, «aisiaz eta kirolaz gozatzeko» orientazio zerbitzu berri eta alternatibo bat eskeini nahi du. «Gizarteak ez du ia denborik hartzen aisian egin daitezkeen ekintzen inguruko informazioa biltzeko, beraz, denbora librea edonola pasatzen dute gehienek», azaltzen dute Kaxkarditik. «Zerbitzu honekin, herritarrei erreztasun gehiago eman nahi zaizkie, berrin kabuz ekintza aktiboak gauzatzeko», gaineratu dute kirol erre- kreatibo elkartetik.

Urtaroaren arabera, inguruan eskaintzen dituzten kirol ekintzen berri ematea da beraien asmoa eta lagunartean edo familian kirol eskaintza alternatiboak ezagutzeko proposamenak luzatuko dituzte. Behar diren argibideak eman eta proposamenak egin zein informazioa eskatzeko kaxkardi@hotmail.com helbidea izango dute.

» UDAZKENERAKO PROPOSAMENAK

Mendia

Aizkardi mendi elkarteak antolatutakoak. Informazio gehiago www.aizkardi.com helbidean.

■ **Urriak 19.** Izki parke naturalera irteera.

■ **Azaroak 24-30.** Mendi Astea Villabonan.

■ **Abenduak 21.** Irumugarrietara (Aralar) irteera.

Ibilaldiak

Ibilbide seinalizatuak eta homologoak Zizurkil inguruetan. Informazio gehiago www.zizurkilnabarra.com.

■ **SG-Gi 26.** Mendiko larreak (2,6 kilometro).

■ **SG-Gi 27.** Zizurkilgo baserriak.

Krosa

■ **Azaroak 9.** Behobia Donostia lasterketa (20 kilometro). 11:00etatik aurrera trenetz joateko proposamena Boulevardeko hel- mugara lasterketaren amaiera ikustera joateko.

■ **Abenduak 13.** Gau Krosa Zizur-

Zerbitzu honekin, besteak beste, ondoko helburuak lortu nahi dituzte: denbora libreak, aisialki eta kirolak egunerokotasunean ekar- tzen dituen onurak ezagutzea; bi-

kilen. 1992 baino lehen jaiotakak 2,5 kilometro eta ondoren jaiotakoak 7,5 kilometro.

Abentura

■ **Paintball Quatro.** Gaztelun. Informazio gehiago 618 25 49 99 telefono zenbakian.

■ **Zubi-jauzia.** Urriaren 25ean, 13 urtetik aurrerakoentzat Azkoitia. Garraioa antolatzeko dago oraindik. Informazio gehiago kaxkardi@hotmail.com (18 urte azpikoak) edo kaxkardi@hotmail.com (beste guztiek).

Bizikleta

■ **Andoain-Leitza.** Trenbide zaharretik, 26 kilometro. Informazio gehiago, mapak eta fitxa teknikoak eskuragarri www.plazaola.org eta www.viasverdes.com helbideetan.

■ **Zizurkil-Larraul.** Bost kilometro ibilbidea. Zizurkil-Asteasu bidegore- rriaren bitartez eta Larraulgo iogeara errepidez. Larraulgo museo- astelehenetik ostiralera irekita, au- rrez txanda hartuta.

zimodu osasungarri bat eramatea eta honek duen garrantziaz ohar- taraztea; herritarren arteko harre- manak sendotzea eta parte-har- tzea eta inizatiba sustatzea.

Flemingo 10 etxebizitza tasatuen zozketan sartzeko aukera

Villabona » Eskabideak hilaren 13tik 31ra egin daitezke; hilaren 8an bilera informatiboa egingo dute Gurea aretoan.

ERREDAKZIOA

Flemingo etxebizitzaren sustapena bukatzeaz dagoela, Villabonako Udalak, Villabona Lantzen SA so- zietatearen bidez, babestutako 10 etxebizitzaren erosketara eskaintzen die herritarrei. Etxebizitzak hauek tasatu izango dira eta beraz, Udalak ezarritako prezioa izango dute, merkatuko prezioa baino baxuagoa. Zehazki, BOEren modu- luaren prezioa bider 1,7 eginez atez- ratzen den prezioa izango dute.

Eskabideak aurkezteko epea ahilarren 13tik 31ra izango da eta horretarako udaletxeko udalbatza- aretoan egin beharko da, aste- lehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara. Bilera informatiboa bat egingo da hilaren 8an, 19:00etan, Gurea aretoan.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Renfek 117.000 plaza jarriko ditu aldiriko trenetan Kilometroetarako

Anoeta » Aparteko garraio neurri horri esker, aldiriko 84 tren bikoitz egongo dira bihar, festa erraldoira jendea trenetz iritsi dadin.

ERREDAKZIOA

Renfek aldiriko trenen kopurua gehituko du bihar Kilometro- k jaietarako. Horrela, 84 zerbitzu izango dira, jaiegun normal batean 46 zerbitzu izaten direnean. Bes- talde, tren bakoitzeko plazak bi- koiztuko egingo dira, konposizio bikoitza erabiliz, hau da, bi tren el- karri lotuta. Horri esker, 117.000 plaza inguru eskainiko dira 06:00etatik hasi eta 23:00ak arte. Tren bakoitzean 1.200 eta 1.500 pertsona bitartean sartuko dira. Halere, Renfek egindako kalku- luaren arabera, 55.000 bidaiari izate- ra espero dute.

Renfe Aldiriak zerbitzuko tren guztiak lau minutu geratuko dira



Anoetako geltokiko gasak lehen baino 60 metro gehiago ditu, I. GARCIA

Anoetako geltokian. Kilometroak jaiko antolakuntzak zirkuiturako sarrera geltokitik 50 metro eskase- ra kokatu du. Kilometroak jaira- trenetz doazenen joaneko bidaiari eta itzulerari segurtasun albait- gehien emateko, Renfek Anoetako geltokiko nasak 160 metroko luze- ra izan arte luzatu ditu, lehen baino 60 metro gehiago.

Era berean, Kilometroak jaiko antolakuntzak Anoetako geltokia- ren ondoan eremu zabala egokitu- ko du bidaiarientzat, trenetik jai- saterakoan edo trenen sartzerako- an trenbidea zeharkatu ez- dezaten. Renfetik txartelak aurre- tik erosteko gomendatzen du, bihar ilarak saihesteko. Gaur da- zu- ken eguna txartelak erosteko.

«Nafarroako Gobernuari eta norbanakoen ekimenei esker desagertzetik urrun daude»

SATUR NAPAL Urologoa eta idazlea

Leitza » Lau abere ezberdin, lau bertako arraza, galtzear aurkitzetik «betirako» ziurtatu omen daude gaur egun.

ASIER IMAZ

Arriskuan dauden Nafarroako lau arraza hizpide, Satur Napal (Muri- llo El Fruto, 1955) eta Alberto Perez de Muniainek jadanik lau liburu argitaratu dituzte. Atzo hitzaldia eskaini zuten Napalek Leitza. **Zein dira arriskuan aurkitzen diren bertako lau arraza horiek?** Gure lau liburuetan agertzen diren arrazak honako hauek dira: Nafarroa bertako zaldietan *Jaca Navarra* arrazaz eta Auritzeko zaldietaz hitz egiten dugu. Beste liburu bat Betizuen inguruan idatzi genuen eta laugarrena Nafar arrazako behien inguruan. Leitza egun dugun hitzaldian lau arraza horietaz aritu gara hizketan.

Bertako lau arraza eta laurak arriskuan?



ASIER IMAZ

Lehen desagertzeko arriskuan zeuden baina orain egoerari buelta eman zaio; Nafarroako Gobernuaren planei esker eta norbanakoen ekimenari esker, desagertzetik urrun daude gaur egun. Auritzeko 4.000 behor daude, *Jaca Navarra* arrazakoak 500, Nafar arrazako behiak berreskuratzen ari da Nafarroako Gobernuak, Miguel Reta ere hor dago, arraza honetako ganaduekin lan egiten du berak. Betizuekin ere berdin, Nafarroako Gobernuak sartu da eta gaur egun ehundik gora aurkitzen dira. Arriskuan aurkitzen dira oraindik, baina ez desagertzeko adina.

Baina desagertzear egon ziren ezta?

Bai, batez ere Betizuak eta *Jaca Navarra* arrazako zaldiak.

Zergatik iritsi ziren muga horretara?

Betizuek ez zuten interes ekonomiko handiegirik. Bere okelak ez du ia ezer balio eta esnetarako ere ez dira egokiak. Nafarroako Gobernuak ale batzuk hartu eta Aoz ingurura eraman zituen; herri hu-

tsak aurkitzen ziren eremuetan jarri zituen. Orain 100 abere baino gehiago daude. Leitza eta Goizuetan inguruetan adibidez, hainbat baserritan aurkitzen dira. Desagertzeko arriskutik at daudela dirudi. *Jaca Navarra* arrazako zaldien kasuan, hauek ia desagertzear zeuden. Urbasa inguruetak lur eta herrixketan aurkitzen ziren azken abereak. Nafarroako Gobernuak Iruña behealdeko ganadutegi batera eraman zituen eta han mantendu dituzte. Bestalde, abeltzain batzuk abeltaldeak ere egiten hasi dira eta arazoa konpondurik dagoela dirudi.

Hala eta guztiz ere, ekonomikoki errentagarritasunik ez baldin badaukate...

Betizuek ekonomikoki balio handirik ez badute ere, euren okelajan egiten da. Horretaz gain balore ekologikoa ere badute; basoetan suteak sortzeko arriskua murrizten dute, zikinkeria garbitzen baitute. *Jaca Navarra*-ren kasuan salerosketa on badago; oso ganadugogorra denez, eurek mendian bi-

latzen dutenarekin nahikoa izaten dute.

Bere kabuz desagertzera doanari laguntza ematea komenigarria al da?

Nafarroa bertako arrazak mantentzea oso interesgarria da. Kontutan hartu behar da ez dela lan horretan Nafarroako Gobernuak bakarrik ari, Europako Batasuna ere laguntzak eskaintzen ari da.

Hitzaldian zein ondorio iritsi nitzen?

Lau arraza hauek mantentzen jakin dugulako, zortedunak garelako aipatu genuen. Leku gehienetan bertako arrazak galdu egin dira. Gure kasuan, zortetarekin eta ozta-ozta salbatu egin ditugu. *Jaca Navarra*-ren kasuan zorte handia da gaur egun hor egotea. Nire ustez gero eta garrantzi gehiago emango zaie; Ingalaterran adibidez, bertako behi basatien taldeak babestuz gain, jende ikustera joan dadin bul-tzatu dute.

Ez dira desagertuko, oraingoz. Baina gero, agian...

Nire ustez betirako berreskuratzen dira. Adibidez orain modan jarri da abeltzain askoren artean *Jaca Navarra*-ko zaldiak edukitzea. Lortu nahi dituenak erosi egin behar ditu eta prezio onean erosi ere. Betizuek nahiko zabalduak daude. Nafar arrazako behia ere modan dago eta Auritzeko zaldiak errentagarri iritertzen dira.

Herrialde Katalanetik



» Herrira begira

Aimar Sagastibeltza
Futbol jokalaria

Eztot uste *Astekari* hau idaztea mezu izateko kirol meritui in dotenik, beño aukera hau eskaini ditezanez, gustora ingo dot egie esan.

Laxter lau aste pasako die Gimnastik taldeen nausetik eta balantze nahiko positiboan itten dot nere egoeraz; izan e, eskuzabalik hartu nauea taldekidek eta oso errega suertatu zat taldeen integratzea. Egie da lehenengo mailan urte askotan jokatu duen jokalarik (*Arpón*, *Campano*, *Jandro*) taldekide gise ikustekin haseran nolabateko errespetoa ematen dola, beño esan bezela, lehenbiziko eunetik eroso sentitutu nitzen taldeen.

Errege Kopako partidun izan ezik, oin arte jokatu ditun partidu ofizialetan deialditik kanpogelditu naiz, logikoa den bezela. Beño beno, ikaragarri ilusionatue nau, lana itteko eta ikasteko gogoz. Esan beharrik eztauo oso komplika-

tue dela bigarren mailako talde baten jokatzera, are gehio nere kasun, filialetik igo berrin ta nere postun izen edo pisu haundiko jokalarik daudenen. Halare argi dauket oin arte bezelaxe seittu beharra dote-la, euneroko lana ahalik eta hobekina ifiez, epe luzera dauden helbururi kasoik in gabe. Izan e, ezta sekulen jakiten noiz ailtuko den norberan momentue; akaso hilebete barru, beharbada bost hilebete, akaso sekulen ez... Beraz, entrenamentu guzitan daukaten onena ematen saiatzea eta ahal doten neurrin disfrutatzea besteik etzait gelditzea, pribilegiatu bat bainaiz aukera hau izatez.

Kirol ingurutik kanpo zer? Ba Tarragona hiririk 10 minutura daon La Poble Mafumet izeneko herri itsusi baten bizi naiz aurreko urteko taldekide batekin. Eunero goizetan entrenatzen ganez (atsalde sueltan baten ere bai) atsaldek libre izaten dituu normalen. Eunero-ko siestatxoan in ondoren hirire joaten naiz gehienetan taldekiden batengana atsalde pasa, edo oin dela gutxi arte bezela, hondartzara. Beraz, oso gustora bizi naiz eta ezin naiz kejavu, nahiz eta ez izan hain errega nere jendegandik al-dendute pasatzea ia urte osoa, bati-pat momentu puntualetan. Beño beno, aukera doten guzitan joaten naiz Leitza.

Arriskutik lasaitasunerako bidean bertako arrazako behi eta zaldiak

Leitza » Herriko Liburutegian Satur Napalek hitzaldia eskaini zuten atzo eta bertan 30 bat lagun elkartu ziren.

Leitzako Herri Liburutegiak *Bertako arrazak arriskuan* izeneko hitzaldia antolatu zuten atzo. *Jaca Navarra* eta Auritzeko zaldiak, Betizuak eta Nafar arrazako behien kasuak aztertzen zituen bertan. Satur Napal mediku eta idazleak. Alberto Perez de Muniain arazo personalengatik ez zen Leitzara joan.

Herriarren erantzuna «oso ona» eta neurri batean «harriga-



Zutik dagoen Satur Napalek hitzaldia eskaini zuten atzo liburutegian. A. IMAZ

ria» izan zen antolatzailerean esanetan. Liburutegian 30 bat lagun bildu ziren eta hauen artean hainbat baserritar aurkitzen ziren. Za-

lantzarik gabe atzo Satur Napalek diapositiba eta guzti azaldu zuten gaia oso interesgarria suertatu zitzaizen hauei.

@ Inkestak eta eskualdeko Kilometroetako bideak.

HITZAren webgunearen ataleko bat da inkestena. Webgunean agertzen den azkeneko inkestak honela dio: «Udazkenean ekitaldi kultural asko egiteko ohitura dago: esaterako, Kultur Asteak. Beharrezkoak ikusten al dituzu?». Inkestetan botoa emateaz gain, gaiari buruz iritzia emateko aukera dago. Bestalde, bideok atalean, eskualdean egin eta egingo diren Kilometroak jaien bideok daude ikusgai.

www.tolosaldekohitza.info

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Lanaldi erdira eta igandeak jai izango dituen esperientziadun zerbitzari neska edo mutila behar dugu. 680 10 39 59 eta 635 75 25 23.

SALGAI

■ **Telebista.** Telebista saltzen dugu, Panasonic 32", plana. Urte eta erdi dauka. 637 47 48 23.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Bikote gazte batek etxebizitza bat hartuko luke alokairuan. Alegialdean. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 628 07 57 53.

■ **Baserría.** Baserrí edo borda bat hartu nahi dugu alokairuan. Berri-tzeko dagoena edo berritua. Mer-kea edo oso merkea. Interesatuak deitu: 634 45 91 10.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosako Udalak eta Kutxak antolatuta, Probintziako 39. Abelgorri Lehiaketa Ferialekuan goizean zehar.
■ **Leitza.** Gaur egingo den manifestazio nazionalera joateko autobusa jarri dute Bilbora. Izen-emaitea, Torrean. Autobusa 14:30ean irtengo da.

Jaiak

■ **Leitza.** II. Aurrera Eguna: 09:00etan diana, 10:00etatik 14:00etara rokodromoa, tirolina eta zaldiak, 11:00etan neska palistak, ondoren dantza taldea, 12:30ean futbol partidua, 13:00etan poteoa Incansables txarangarekin, 14:30ean Karrapen bazkaria, ondoren ingurutxo, ondoren poteoa.
■ **Ugarte.** 11:00etan gaztetxoentzako partidak, 12:30etik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara puzgariak eta ohe elastikoak, arratsaldean zaldiak, ondoren txokolata, 16:00etan IX. Mus Txapelketa, 21:00etan zahagi ardoa, 22:30ean Ansozregi eta Larrañaga trikitalerik.

Musika

■ **Anoeta.** Bi taldeen kontzertuak izango dira entzungai gaur Anoetako Gaztetxean: Hankarteko oi eta Zaunka, 23:00etatik aurrera.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Kolore biziekin eginiko paisaiak

Alegia » Urrian zehar Enkarna Megia alegiarraren mihise gaineko margolanak izango dira ikusgai.

NEREA URBIZU

Alegiako jubilatuen tabernan berri ere erakusketak jartzen hasi dira uda bukatu ondoren. Oraingoan, urrian zehar izango den erakusketak emakume alegiar batena da: Enkarna Megiarena, hain zuzen ere. Oleoa erabiliz egindako margolanak ikusi ahal izango dira urri osan zehar, asteartetik igandera bitarte eta tabernaren ordutegiaren baitan.

Margolan guztiak figuratiboak dira eta lan hauetatik gehienak naturako paisaiak dira ikusgai daudenak (*Mendiak, Zurriola, Sukaldea, Ganbara...*); hala ere, erretratoren bat ere badago (*Emakumea erretzen* eta *Emakumearen bustoa*).

Kolore oso biziekin eta konbinazio bereziekin egindakoak dira guztiak. Ikusteaz gain, erosteko aukera ere badago: bertan prezioa ere jartzen du.



Enkarna Megiaren lanak daude ikusgai Jubilatuen tabernan. ENKARNA MEGIA



943 671 427

entzutenak osatzen: 10etik 10etara
lurrunak: 10etik 10etara
10etik 10etara

zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira

tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

iragarkia jartzeko: www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza
webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

iragarkilaburrak.com

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko

iragarkia jartzeko